

OIARTZUNGO

XXXIV.

XABIER LETE

PROSA ETA POESIA

LEHIAKETA

2021

ANTOLATZAILEA:

**OIARTZUNGO UDALA
EUSKARA BATZORDEA**

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. 8-18 urte bitarteko oiartzuar guztiek parte har dezakete. Oiartzunen erroldatuak dauden haur eta gazteez gain, beste herriren batean erroldatuta egon arren, Oiartzungo zentroetako ikasleak direnak ere onartuko dira
2. Lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute.
3. Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake bere mailari dagokion lehiaketa mota bakoitzean (LHn lanak taldeka aurkeztu ahal izango dira). Taldeka aurkezten direnen kasuan, saria taldearentzat izango da eta ez banakakoentzat.
4. LH 5etik gorako mailetan, ORDENAGAILUZ idatzita bidaliko dira idazlanak. Aurkezpenari dagokionez, ondorengoak bete beharko dira: **A4** neurrian, **1,5eko lerroarte** eta **ARIAL** letra mota erabilita (**12 puntuko** tamaina).

LH 3 eta LH4 mailetan, idazlanak ESKUZ idatzita bakarrik onartuko dira .

Lanen lehen orrialdean IZENGOITIA azalduko da eta 2 kopia aurkeztuko dira lan bakoitzeko (LH3 eta LH4 mailetakoen kasuan originala eta kopia bat). Orri TXURIAK erabiliko dira.

5. Lanaren 2 kopiak "Klip" batekin lotuko dira. EZ dira kartazal handi batean sartuko.
6. Kartazal txiki batean, oinarri hauen eranskinean dagoen orria sartu beharko da datu guztiak beteta eta sinatuta.
Kartazal hau lan originalari lotuko zaio grapa baten bidez.
Kartazal txikiaren kanpo aldean ere IZENGOITIA idatziko da.
7. Mailaz mailako berezitasunak

LH3 eta LH4:

- **Prosa atalean soilik** lehiatzen da.
- Idazlanak **eskuz idatzita soilik** onartzen dira. Ez dira onartuko ordenadorez edota makinaz idatzitakoak 2 maila hauetan.
- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko batez beste 5 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jokatu da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.

Beste maila guztietan:

- Prosa eta poesia ataletan lehiatzen da.
- Idazlanak ordenagailuz idatzita soilik onartzen dira.
- Poesia sailean, gutxienez orrialde bateko (24 lerro inguru) luzera izango du lanak eta gehienez 2 orrialdekoa.
- Prosa sailean, gutxienez 2 orrialdeko luzera izango du lanak eta gehienez 3 orrialde.

- Ikastetxe barruan, **gela bakoitzeko bataz beste 3 lan onenak** aukeratuko dira. Kopuruarekin era malguan jokatuko da, Udaleko Euskara batzordearen oniritzia jasotzen bada.
8. Idazlanetan jorratu beharreko gaia librea izango da maila guztietan, bai poesia sailean eta baita prosa sailean ere.
 9. Lanak Oiartzungo Udaleko Euskara Zerbitzura bidaliko dira, azaldu den eran. Ikastetxe bakoitzak maila bakoitzari dagozkion idazlanak mailaka sailkatuta entregatuko ditu Euskara Zerbitzuan edota udaletxeko harreran.
 10. Lanak aurkezteko epea, 2021eko azaroaren 5ean, ostirala, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.
 11. Sariak honela banatuko dira:
 - Lehen Hezkuntzako 3.eko eta 4.eko mailatan, prosa sailean soilik burutuko da lehiaketa. Bina sari banatuko dira maila bakoitzean.
 - Beste mailatan, lehiaketa eta sari-banaketa bikoitza izango da, hots, bina sari prosa atalean eta beste bina sari poesian, sail bakoitzean.

Lehen Hezkuntzako 3. maila (L.H. 3)
50 € ko 2 sari prosa sailean (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 4. maila (L.H. 4)
50 € ko 2 sari prosa sailean (liburu edo ikasmaterialetan)

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila (L.H. 5 eta L.H. 6)
60 € ko 2 sari prosa sailean (liburu edo ikasmaterialetan)
60 € ko 2 sari poesia sailean (liburu edo ikasmaterialetan)

Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak (D.B.H. 1 eta D.B.H. 2)
80 € ko 2 sari prosa sailean (liburu edo ikasmaterialetan)
80 € ko 2 sari poesia sailean (liburu edo ikasmaterialetan)

D.B.H. 3-4 (14-16 urte bitartekoak)
100 € ko 2 sari dirutan prosa sailean
100 € ko 2 sari dirutan poesia sailean

16-18 urte bitarteko gazteak
120 € ko 2 sari dirutan prosa sailean
120 € ko 2 sari dirutan poesia sailean
 12. Aipamen bereziak: Saritutako lanez gain, sail bakoitzean aipamen bereziak egiteko aukera izango da, epaimahaiak hala erabakitzen badu (lanaren originaltasunarengatik, gaia lantzeko moduarengatik...). Aipamen berezia jaso duten lanak besteekin batera argitaratzeko ahalegina egingo da, argitalpenaren ezaugarriek hala ahalbidetzen badute (orrialde kopuruaren muga kasu)
 13. Lan sarituen zabalpena egiteko, bide ezberdinak erabiltzeko aukerak aztertuko dira, liburuxka formatua, digitala... unean uneko baliabideen baitan.
 14. Sari-banaketa abenduaren 4an izango da, arratsaldeko 17:00etan, udaletxeko Areto Nagusian.

**OIARTZUNGO
XXXIII. XABIER LETE
PROSA ETA POESIA LEHIAKETA 2021**

LEHIAKIDEAREN DATUAK:

IZENGOITIA	
IZENA ETA 2 ABIZENAK	
IKASMAILA eta ADINA	
IKASTETXEA	
HELBIDEA	
TELEFONOA	

Adin txikikoen lehiakideen irudi eta datuen gaineko gurasoen baimena

Baimena ematen duenaren datuak:

IZENA / ABIZENAK: _____ NA: _____

Adierazten dut:

-Goiko datuetan agertzen den adin txikikoa nire ardurapean dagoela.

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari nire ardurapean dagoen adin txikiko honek lehiaketara aurkeztu duen lana argitaratzeko.

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari nire ardurapean dagoen adin txikiko honen argazkia eta identifikazio datuak (Izen-abizenak adina eta ikasmaila) sarituen bilduman argitaratzeko.

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari, sari-banaketan nire ardurapean dagoen adin txikiko honi argazkiak atera eta argitaratzeko.

Sinadura:

Adinez nagusi diren lehiakideen irudi eta datuen gaineko baimena

Baimena ematen duenaren datuak:

IZENA / ABIZENAK: _____ NA: _____

Adierazten dut:

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari nire lana argitaratzeko.

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari nire argazkia eta identifikazio datuak (Izen-abizenak adina eta ikasmaila) sarituen bilduman argitaratzeko.

-Baimena ematen diodala Oiartzungo Udalari, sari-banaketan niri argazkiak atera eta argitaratzeko.

Sinadura:

Lege oharra: Oiartzungo Udalak, laguntzak, bekak, diru-laguntzak eta sariak kudeatzeko, kulturarako espazioak lagatzeko, kultura- eta kirol-zerbitzuetan alta egiteko eta udal-artxiiboak kontsultatzeko garaian, Toki Araubidearen Oinarri 7/1985 Legearen arabera tratatzen ditu datuak. Datu pertsonalak arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei, hala nola Eusko Jaurlaritzari jakinarazi ahal izango zaizkio. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezerezteko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.